



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Huts egin asmatzeko

Huts egiten ez duenak ez du deus asmatzen», omen dio zaharra ala berria den esaten jakingo ez genukeen esamolde batek. Hezkuntzan, gehienetan, bi aditz horiek antonimo gisa hartu ditugu. Ondorioz, sarritan, heziguneetako jardunean eta irakaste-ikaste prozesuetan bi aukera daude: huts egin ala asmatu.

Oso erro sakonak garatu dituzte bi aditzek hezkuntzaren zoruan. Hala, huts egitea porrotaren multzoan lerrokatu dugu, saihestu beharreko ekintzan; asmatzea, aldiz, arrakastarenean, lortu beharreko helburu behinenean, bakarrean ia. Asmatzea da denok lortu nahi duguna, denon ametsa. Pentsamolde horrek, ikusmolde eta praktika bat garatu du. Eta, oharkabean seguruenik, huts egitea nola ekidin bihurtu da hezitzaileon buruhauste eta egiteko nagusia. Horrekin batera, asmatzea da ikasleen –eta zergatik ez dugu esango, irakasleen eta hezitzaileen– eginbehar urgentea. Eta lehenengotik eta azkar egiten badugu, hobe.

Ekainean gaude, ebaluazio garaia da. Gehiegitxotan zer dagoen ongi eta zer gaizki zenbatzeko eta adierazteko garaia; eta, gutxienean, tamalez, zenbat aurreratu dugun eta non geratu garen ka-teatuta atzeman eta komunikatzekoa.

Ekain honetan ere, maizegi, neska-mutilak izango dira ebaluazioaren fokupean ipini eta epaia jasoko dutenak. Hezitzaileak, metodologiak, plangintzak, heziguneetako antolaketak, espazioak, materialak, hezkuntza jardunean egin diren eskaintzak, hezkuntza legeak, hezkuntza administrazioen erabakiak edota ebaluatze-erak berak ere

aztertzea beste baterako geratuko dira. Zalantzez betetako garaia izango da ekaineko hau, behin berriro ere, ebaluatze-ko lana dugunontzat; izan ere, hain da zaila ebaluatzerakoan esatea eta aurreikustea zer gertatuko den!

Bete-bete gauden ebaluazioaldi honetan, indar bereziarekin berpiztu behar luke zalantzak: zein da eskolaren helburua, emaitza ala hobekuntza? Zer ote da interesgarriagoa, jarraipena ala lorpena?

Zalantzak zalantza, eta galderak galdera, esaldia ez da iparrorratz txarra: “Huts egiten ez duenak ez du deus asmatzen”. Aditzen eta esaldiaren beraren esanahian sakonki murgilduz, zein urrun iristeko aukera izango genukeen. Izan ere, huts egitea ez da atzera bueltarik ez duen egoera, prozesu baten hasiera izan liteke. Begira diezaiegun “asmatu” hitzak Euskal Herriko gainontzeko hizkuntza ofizialetan dituen adierai. Bada, ikusiko dugu frantsesez askoz ere esanahia hezitzaileagoak dituela: Asmatu = *inventar, crear, imaginar, idear, ocurrir, inventarse, acertar, atinar, adivinar, predecir, acertar a, conseguir, lograr, imaginar, inventer, sentir, pressentir, présumer, devenir, trouver, réussir*.

Gaztelaniazko *acertar* adiera murriztailetik hara-tago joatea lortuko bagenu, akaso, akatsa, huts egitea, despenalizatzea lortuko genuke. Eta esango nuke despenalizazio hori benetako iraultza litzatekeela hez-

kuntzan. Huts egitea har dezagun ezabatzea, aldatzea, birtentsatzea, berrekitea, saiatzea estrategia gisa dituen prozesu bezala. Huts egin prozesu gisa asmatzeko, hitzaren zentzurik zabalenean! •



Huts egitea zerbaiten amaiera baino, zerbaiten hasiera izan daiteke. GAUR8